

---

## AITA SANTI ONAINDIA EUSKERAZAINTZAKOIA

---

Eusko baserri zoragarriak  
mendi bitarte artean  
Bizkai aldeko Amorotoan  
urretxindorrek aidean  
udabarri ta urrezko udan  
mutil koskorra lanean  
aldi artako oitura legez  
itxaurren beian aurrean.

Zuri begia zuzendu eutzun  
maitasunez dei eginik  
aingeru antzo artu zinduzan  
eusko baserri aldetik;  
doai ederrez apaindurikan  
jarraitu zeuntsan gogotik  
mutil gaztea aurrera, doa  
Jaungoikoaren eskutik.

Zeru altutik begira egon  
gizadiaren Artzaiña,  
Euskalerriko lurak agurtuz  
bedeinkapenek batera;  
mutil zintzoak eta langilleak  
batu nai zitun etxera  
fede-zaleak argi egien  
euskaldunen baratzara.

Sinismena ta langille sena  
garbi, zeunkazan barnean  
baita erria nungoa ziñan  
euskaldunen lurraldean;  
Jaungoikoa ta eusko bizitza  
amets zenduan lurrean  
zerua eta eusko gizadi  
batuz alkartasunean.

Baratz eder bat sortu zenduan  
lora ederrez landurik  
egite sendoz ta ezilkorrez  
kultur lana jorraturik;  
milla lan eder egiazkoak  
erriari opaldurik,  
eskar onetan agurtu dozu  
biotza zabal zabalik.

**PAULIN**

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko ere. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.